

KAMIOIETARAKO UDAL APARKALEKUAREN ERABILERA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA ETA KONTZEPTU HORRI DAGOZKION TASEN EZARPENA

2002ko otsailaren 27ko 25. NAOn argitaratua

ATARIKO KAPITULUA

Xedapen orokorrak

1. artikulua. Ordenantzaren xedea. Ordenantza honen xedea da kamioietarako udal aparkalekuaren erabilera arautzea eta kontzeptu horri dagokion tasa ezartzea.
2. art. Funtsa. Ordenantza hau onesten da honako arau hauen babesean: Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeko 99 eta 262. artikulua, 4/1999 Foru Legeak aldatu zuen Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeko 100. eta hurrengo artikulua eta Nafarroako Toki Entitateen Ondasunei buruzko Erregelamenduko 93. eta hurrengo artikulua.
3. art. Ordenantza honen esparru objektiboa. Ordenantza honetako arauak aplikatuko zaizkio kamioietarako udal aparkalekuari.

I. KAPITULUA

Udal aparkalekua erabiltzeko arauak

4. art. Ordenantza honek arautzen duen udal aparkalekua bakar-bakarrik kamioiak aparkatzeko erabiliko da. Aparkalekua jabari publikoko ondasuna da, eta haren titularra Olaztiko Udala da.

5. art. Udal aparkalekua erabili nahi dutenek udalaren lizentzia eskuratu beharko dute.

Lizentzia emanen da aparkalekuko plaza bakoitzarentzat, erabilera pribatu arrunterako, Nafarroako Toki Entitateen Ondasunen Erregelamenduko 93. artikulua arautzen duen bezala, erabileraren intentsitatearen arabera.

Lizentziak urtebeterako emanen dira, gero luzatzeko aukerarekin, behin-behinekotasunez, hirugarrenei kalterik egin gabe, hartzaileak derrigor bete beharko dituelarik baldintzak, eta errebokatzen ahalko dira edozein unetan, baldintzak betetzen ez badira edo interes publikoko arrazoiak direla medio.

6. art. Lizentzia ematearekin batera, eta ordaindu ondoren kontzesio-urteari dagokion tasa, hartzailearen esku utziko da aginte elektronikoko bat, aparkalekuko atea irekitzeko balioko duena. Aginte horren jabea, nolana ere, Olaztiko Udala izanen da.

7. art. Lizentzia adjudikatzeko lehentasuna izanen dute, kasu guztietan, aparkaleku gisa egokitutako lurzatirik ez duten eskatzaileak. Plazaren bat hutsik gelditzen bada, aparkaleku gisa egokitutako lurzattia dutenek ere eskuratzen ahalko dute lizentzia.

8. art. Lizentzia eskuratzen dutenek aparkalekua erabiliko dute, nolakoa den eta zertarako den kontuan hartuz, kaltetu eta hondatu gabe, erabilera normal, egoki eta arrazoizkoak berarekin dakarren eraginetik aparte, beti ere lizentziaren xedearen arabera erabilia.

9. art. Udal aparkalekua ezin izanen da inola ere erabili lizentziak aipatzen zituenak ez-bezalako xedeetarako.

10. art. Udal aparkalekua erabili nahi duten pertsona edo entitateek idatziz eskatu beharko diote Udalari, identifikazio pertsonaleko datuak eta ibilgailuarenak adierazita.

11. art. Udalak eskatzen ahalko du fidantza eratzeko, legez onartzen diren eratako edozeinetan. Fidantza horrek berme balioa izanen du, udal aparkalekuko lurzatiak egoki erabili eta lagapena egin aurretik zeuden bezala uzteko. Era berean, fidantza horren bidez eginen zaie aurre kalte eta galerei, baldin eta udal aparkalekuan horrelakorik izan eta erabiltzaileek erantzun behar badute. Horretaz gain, ordenantza hau aplikatzeagatik ezar daitezkeen zehapenak ere hartuko ditu bere gain.

Fidantzaren zenbatekoa izanen da kontzesioaren denbora guztiarengatik likidatutako tasaren erditik osora bitartekoa.

12. art. Lizentziaren kontzesio epea amaitutakoan, hartzaileak Udalari horren berri eman beharko dio. Udalak bidezkotzat jotzen dituen froga guztiak egiten ahalko ditu, ordenantza honetan eta lizentzietan kontzesio-hartzaileentzat ezarritako betebeharrak eta baldintza guztiak bete ote diren ikusteko.

Kontzesio-hartzaileek betebeharrak eta baldintza horiek guztiak bete dituztela, kalte eta galerarik ez dagoela eta zehapenak jartzerik ez dagoela frogatu ondoren, Udalak fidantza itzuliko du, fidantza hori eratzea lehendik eskatu bazen.

Bestela, kasuan kasuko erantzukizunak eskatuko ditu. Horrelakoetan, fidantza erabiliko da ordaintzeko ordenantza honetako betebeharrak eta lizentzien baldintzak ez betetzeagatik, kalte eta galerak eragiteagatik eta ezarritako zehapenengatik, bidezkotzat jotzen den erantzukizuna.

II. KAPITULUA

Erantzukizunak, arau-hausteak eta zehapenak

13. art. Kamioietarako udal aparkalekuko kontzesio-hartzaileek eta/edo erabiltzeko lizentziaren titularrek erantzun beharko dute, maltzurkeria edo utzikeria direla medio bertan eragindako kalte eta galerengatik.

14. art. Aparkalekua erabiltzeko lizentziaren titularrak bat baino gehiago badira, denek elkarrekin eta solidarioki erantzun beharko dute, ordainduz tasak, aparkalekuan eta instalazioetan eragindako kalte eta galerak eta ezartzen diren zehapenak, halakorik gertatuz gero.

15. art. Arau-haustetzat hartuko da kamioien aparkaleku izatea ez den bestelako edozein jarduera, eta bereziki ingurunea hondatu eta ingurugiroa kaltetzen dutenak. Arau-hauste larritzat hartuko dira, besteak beste, edozein objektu utzi edo abandonatzea eta aparkalekua zikintzen duten jarduera mekaniko guztiak.

16. art. Goian aipatu arau-hausteak eginez gero, honako zehapen hauek jarriko dira: kamioietarako Olaztiko udal aparkalekua erabiltzeko lizentzia kentzea.

17. art. Aurreko artikulua betez jar daitezkeen zehapenak aplikatuko dira bidezkotzat jotzen den kalte eta galeren ordainetik aparte.

Aurreko artikuluetan aipatutako erantzukizun eta zehapenak bide exekutiboaren bitartez gauzatu eta betearaziko dira.

III. KAPITULUA

Kamioietarako udal aparkalekua erabiltzeagatiko tasak

18. art. Zergaia.-Udal lizentzia eskuratu ondoren, pertsona fisiko edo juridikoek kamioietarako udal aparkalekua erabiltzeagatiko tasaren zergaia da.

19. art. Subjektu pasiboa.-Prezio publiko hauen subjektu pasiboak izanen dira, Udalak lizentzia eman ondoren, kamioietarako udal aparkalekua erabiltzen duten pertsona fisiko edo juridikoak.

20. art. Karga-oinarria. Karga-oinarria izanen da kamioietarako udal aparkalekua erabiltzen den hilabeteen kopurua.

21. art. Tarifak. Ordenantza honen eraskinean ageri direnak.

22. art. Tributu kuota. Tributu kuota aterako da karga-oinarriari dagokion tarifa aplikatuzetik.

23. art. Sortzapena. Prezio publikoen sortzapena gertatuko da kamioietarako udal aparkalekua erabiltzeko lizentzia eskatzen den unean.

AZKEN XEDAPENA

Ordenantza honek indarra hartuko du Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legean ezarritako baldintzak betetzen direnean. Horren ordez, ordenantza honetan aurreikusten denean, ordenantza fiskal orokorrean eta Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legean xedatutakoa aplikatuko da.

TARIFEN ERANSKINA

2025eko martxoaren 4ko 43. NAOn argitaratua

Kamioiak aparkatzeko lurzatia erabiltzea: 18 euro hilabeteko eta plaza bakoitzeko.

2025eko MARTXOAREN 4AN EGUNERATUA